

HAUR LITERATURA

Aulkien azpian, hamaika istorio

ZER DEMONTRE DAGO AULKIEN AZPIAN?

Idazlea: Harkaitz Cano.

Ilustratzailea: Lorena Martínez.

Argitaletxea: Pamiela.

Orrialde kopurua: 112 orri.

Prezioa: 15 euro.

Lore AGIRREZABAL

Ikertzaile badike zer dagoen aulkien azpian? Hutsunea, amonak erantzitako txapinak, lau oinetan jolasean dabilzan haurren gotorlekua, edo jolaserako gogoz dagoen ume helduaren paradisu?

Ziurrenik, ez diozu galdera horri erantzun bakarra aurkituko Harkaitz Canok eta Lorena Martinezek sortu duten liburuan –“Zer demontre dago aulkien azpian?”–, baina irudimena askatzeko gaia jarriko dizuten ipuin

laburrez eta aforismoz betetako paradisu txikia topa dezakezu bertan. Librelula andereñoak bezala hegoak astindu eta imajinarioari libre hegan egiten utzi besterik ez duzu, beste guztia Canoren hitzetatik eta Martinezen ilustrazioetatik aterako da.

Guztira, 23 testu poetiko edo ipuin labur biltzen ditu liburuak. Besteak beste, esaldi labur bakarren tituluz mintzo diren hitzak aurki ditzakegu, horien artean: Izar urrunak deskribatzeko edo itsasoak ahoa zergatik zabalitzen duen azaltzeko sortutako aforismoak; hostoak erortzean nora joaten diren argitzen digun azalpen poetikoa; Bizarberderen ipuina; isilik egoteko hamabost arrazoi; latan sartzeko moduko ipuin labur bat...

Hitz gutxikoa baina esanahi handikoa da Harkaitz Canoren idazkera, eta,

liburu honetarako ere soberako hitzik gabe, lerro bakarreko edo biko esaldi laburrak eta esaldi gutxiz osatutako orrialde bakarreko edo biko ipuinak sortu ditu.

Soberako edergarririk gabekoak dira Lorena Martinezen ilustrazioak ere. Bere azken lanen ildotik (“Maite dut”, “Tanta baten istorioa”...) lerro gutxirekin esanahiz betetako irudiak sortu ditu. Canoren hitzak bezala, Martinezen ilustrazioak ere oso iradokitzaileak dira, maiz lilura (“Tximistorratza”, “Bazen behi”, “Zirku errusiarra”...) edo jolaserako aukera sortzen dutenak (“Historiako arrautza frijiturik onena”, “Bingo!”, “Izar urrunak”...).

Hau guztia irakurrita hala iruditu bazaizu ere, hau ez da etxeko txikienezko liburua, Pamiela argitaletxeak Mila Gau bildumaren barruan argitaratu baitu. Harkaitz Canoren eta Lorena Martinezen lerroak irakurri eta horien azpian dagoenaz ohartzeko eta irakurketaz gozatzeko 8 edo 10 bat urte beharko dira.

Hala ere, testu pilaketarik gabe, 112 orrialdetan, esaldi eta irudi bakoitzari behar duen lekua emanaz arnasa handiko liburua osatu dute, hegoak astindu eta irudimena aireratzeko behar beste espazio libre uzten duena.

Sartu burua aulkien azpian eta ea zuk zer aurkitzen duzun.



El servicio meteorológico más completo en NAIZ

- 15 días de previsión, por horas.
- Puedes consultar todos los lugares de Euskal Herria, sus alrededores y resto del mundo.
- Temperaturas
- Fases lunares, mareas y mucho más.

entra en:

www.naiz.eus/eguraldia

